METALA ELA

# GIPUZKOAKO METALEKO HITZARMENA

NEGOZIAZIO MAHAIA/ 2. BILERA | DONOSTIN, 2012ko URTARRILAK 9

## GREBA ESKUBIDEA

**Egia esan ADEGI-k egin duen azken planteamendu ultraeskuindarrak ez gaitu ezustean harrapatu; jada hauen ahotik irteten den ezen proposamenik ez gaitu harritzen. Hala ere, "konfliktibitatea ekiditeko klausularen" inguruan (gipuzkoako metalgintzako enpresetan greba eskubidea guztiz baldintzatzea baino beste helbururik ez duen klausula, alegia) hainbat gauza adierazi beharra dago.**

1) Greba Eskubidea langile klaseari dagokion oinarrizko eskubidea da. Greba eskubidea, halaber, pertsona guztie dagokien "ukaezinezko eskubidea" da, horrela aitortzen du Nazio Batuen Erakundeak eta horrela jasotzen dute munduko estatu demokratiko guztietako legediek. Beraz, Gipuzkoako metalgintzako beharginoi greba eskubidea oso modu negatiboan baldintzatzeko proposamenak argi asko erakusten du era hauetako proposamenak egiten dituztenen izaera antidemokratikoa.

2) ADEGI-k greba eskubidearen izaera konstituzionala saihestu asmoz, trikimailu legal bat erabiltzen du. Izan ere 17/1977 Lege-Dekretuaren arabera, *"greba legez kanpokoa izango da indarrean dagoen Hitzarmen Kolektiboaren edukiak aldatzeko xedearekin egiten denean"*. Beraz, ADEGI-k planteatzen duen "konfliktibitatea ekiditeko klausula" Gipuzkoako Metaleko Hitzarmenari atxikitu ezkero, aurrerantzean hitzarmen kolektibo honen eraginpean dauden enpresa guztietan greba eskubidea garatzea legez kanpokoa izango litzateke.

3) Hori dela-eta, ELA sindikatuak ez du inoiz horrelako klausula lotsagabe bat sinatuko. Izan ere, guztiok dakigun moduan, enpresaburuen aurrean presio gaitasunik gabe, akabo enpresa mailan burutzen den negoziazio kolektiboa.

4) Azkenik, ADEGI-ri argi eta garbi gogorarazi nahi diogu, Francoren garaian ere, sindikatuak Greba Eskubidea bezain legez kanpokoak ziren garaian, gipuzkoako langileria kalera irteten zela, grebak eginez, langileon lan eta bizi baldintzen defentsan. Hobe luke ADEGI-k ikasgai hau kontutan izango balu. Izatez, berriro ere gipuzkoako langileriaren duintasuna mespretxatu ezkero, historia errepikatzeko aukera baitago.

# ADEGI-K ENPRESA MAILAKO NEGOZIAZIOA EZABATU NAHI DU

**Gipuzkoako Metaleko Hitzarmeneko Negoziazio Mahaia urtarrilak 9an bildu da, Lan Harremanetarako Kontseiluak Donostin duen egoitzan. Bilera honetan ADEGI-k bere erreibindikazio-plataforma aurkeztu du, gaur egun gipuzkoan gailentzen den negoziazio kolektiboaren eredua goitik behera eraldatzea xede duen plataforma, hain zuzen.**

Izatez, gaurko bileran metalgintzako ugazabek Gipuzkoako Metaleko Hitzarmenari **"konfliktibitatea ekiditeko klausula"** deritzona atxikitzeko nahia azaldu dute. Klausula honen arabera, Gipuzkoako Metaleko Hitzarmeneko edukiak hobetze aldera enpresetan planteatu daitezkeen presio ekintza guztiak (grebak, paroak, kale-agerraldiak, kasu) legez kanpokoak kontsideratuko dira.

## GEHIENEZKO HITZARMENA

Modu honetan, Gipuzkoako ugazabek enpresa mailan ematen den negoziazioa ezabatu nahi dute. Izan ere, negoziazio prozesu batean blokeo egoerara iritsi ezkero, presio ekintzak burutzeko aukera gabe ez dago negoziazioan aurrera egiteko modurik. Beraz, aurrerantzean, Gipuzkoako Metaleko Hitzarmenak sektoreko lan baldintza maximoak finkatuko ditu, eduki horiek (orain eduki minimoak! direnak, gero enpresetan hobetzen baitira) enpresetako negoziazioetan hobetzeko aukera errealik ez baita izango.

## MURRIZKETA GEHIAGO

Enpresa mailako negoziazio esparrua ezabatzeaz gain, ADEGI-k bestelako "proposamenak" ere mahairatu ditu. Hots, Gipuzkoako Metaleko Hitzarmeneko **soldatak izoztea** (hurrengo bi urteetan, gainera), urtean **16 ordu gehiago lan egitea, disponibilitate orduak 85 ordura gehitzea,** soldata igoera ez aplikatzeko klausulan ezadostasunak egon ezkero, **halabeharrezko arbitrajea inposatzea**...

Badirudi ADEGI-ko buruek azken negoziaziotik ikasgai gutxi (edo batere ez) atera dituztela. Espero dezagun orduan ADEGI-ren jarrera zikoitza dela-eta sortutako gatazkan kalteturik suertatu ziren enpresek, berandu izan baino lehen, egoera honi buelta emateko neurriak hartzea. Zeren eta, berriz ere ADEGI-ren Zuzendaritza erradikalari men egin ezkero, ziurrenik orain bi urteko egoera errepika daiteke.

## EZ DA BLINDAJEA, IRUZURRA DA

**Bileran zehar, Gipuzkoako negoziazio kolektiboaren ereduan defendatu duten goitik beherako eraldaketa argudiatzerakoan, ADEGI-k behin baino gehiagotan aipatu du (CONFEBASK-en barnean) LAB, CCOO eta UGT sindikatuetin (ustez euskal negoziazio esparrua blindatu asmoz) Negoziazio Mahaia Intersektoriala osatu izana.**

**Honen harira, ELA sindikatuak argi utzi nahi du enpresa mailako negoziazioa ezabatzea euskal lan harremanen esparruaren defentsarekin ez duela zerikusirik. Hori ez da, inolaz ere, blindaje bat, IRUZURRA BAIZIK!!!**



METALA ELA

# CONVENIO DEL METAL DE GIPUZKOA

**2ª REUNIÓN DE LA MESA NEGOCIADORA** | **DONOSTI, 9 DE ENERO DE 2012**

## EL DERECHO DE HUELGA

**No es que sorprenda demasiado; a decir verdad, los planteamientos ultraderechistas de la Dirección de ADEGI nos tienen ya curados de espanto. Así y todo, la última pretensión de ADEGI, que, mediante la incorporación de una "cláusula anticonflictividad" pretende ilegalizar el derecho de huelga en las empresas del metal de Gipuzkoa, merece algunos comentarios.**

1) El Derecho de Huelga es un derecho fundamental de la clase trabajadora. El Derecho de Huelga es, además, "un derecho inalienable" de las personas, reconocido como tal por la ONU y por la totalidad de los países democráticos. Así pues, la pretensión de ADEGI de reducirlo a la nada en las empresas del metal de Gipuzkoa retrata a la perfección el talante antidemocrático de quienes manifiestan semejantes anhelos totalitarios.

2) ADEGI pretende burlar el alcance constitucional del Derecho de Huelga valiéndose de una argucia de leguleyos recogida en el R.D-Ley 17/1977, en virtud del cual *"la huelga es ilegal cuando tenga por objeto alterar, dentro de su periodo de vigencia lo pactado en un convenio colectivo"*. Es decir, la incorporación de la "cláusula anticonflictividad" al Convenio del Metal de Gipuzkoa supondría la aplicación inmediata de dicho precepto legal y, por consiguiente, todas las acciones de presión que pudieran plantearse en las negociaciones de las empresas para mejorar lo acordado en el convenio colectivo provincial serían consideradas ilegales.

3) El sindicato ELA nunca firmará, ni en esta vida ni en la otra, una cláusula anticonflictividad que, sin lugar a dudas, desarma a l@s trabajador@s de Gipuzkoa y, en consecuencia, reduce a la nada la negociación colectiva a nivel de empresa; pues sin capacidad de presión, la negociación colectiva es pura quimera.

4) Finalmente, debemos recordarle a ADEGI que, ya en tiempos de Franco, cuando los sindicatos éramos tan ilegales como el Derecho de Huelga, la clase trabajadora de Gipuzkoa salía a la calle, declarándose en huelga, para exigir la mejora de sus condiciones de trabajo y de vida. Más le vale a la Dirección de ADEGI que no se olvide de este hecho, y que no vuelva a minusvalorar la dignidad (sobradamente demostrada) de la clase trabajadora de Gipuzkoa. Porque la historia suele repetirse.

# ADEGI PRETENDE REDUCIR A LA NADA LA NEGOCIACIÓN EN LAS EMPRESAS

**La mesa negociadora del Convenio del Metal de Gipuzkoa se ha reunido el día 9 de enero, en la sede del C.R.L. en Donosti. En el transcurso de la reunión, ADEGI ha presentado su plataforma empresarial; una propuesta empresarial que, sin duda, pone patas arriba el modelo de negociación colectiva en Gipuzkoa.**

En efecto, la patronal ha mostrado hoy su pretensión de incorporar al Convenio del Metal de Gipuzkoa una **cláusula "anticonflictividad"**, en virtud de la cual se considerarán ilegales todas las acciones reivindicativas (huelgas, paros, concentraciones...) que en el marco de la negociación de los convenios y acuerdos de empresa tengan por objeto presionar a los empresarios para mejorar las condiciones laborales recogidas en el Convenio del Metal de Gipuzkoa.

## CONVENIO DE MÁXIMOS

De este modo, la patronal de Gipuzkoa pretende reducir a la nada la negociación a nivel de empresa, puesto que excluida la posibilidad de plantear un conflicto colectivo cuando las posiciones se enquistan, la capacidad negociadora de la parte social se diluye. Así pues, en adelante, el Convenio del Metal de Gipuzkoa pasaría a ser en un convenio de máximos, ya que sus contenidos difícilmente podrían mejorarse en las empresas (al contrario de lo que ocurre actualmente, pues hasta ahora el convenio provincial marca unos contenidos ¡mínimos!, que posteriormente se pueden mejorar en los convenios y acuerdos de empresa).

## MÁS RETROCESOS

Además de pretender cargarse de un plumazo la negociación en las empresas, ADEGI ha propuesto una **congelación salarial** para el Convenio del Metal de Gipuzkoa durante los dos próximos años, un **incremento de jornada de 16 horas**, **elevar a 85 las horas de disponibilidad**, someter a **arbitraje obligatorio** las discrepancias que puedan surgir en torno a la cláusula de inaplicación salarial...

En fin, mucho nos tememos que quienes dirigen ADEGI poco o nada han aprendido de la última negociación del convenio. Esperemos que las empresas que ya entonces sufrieron de primera mano la conflictividad sembrada por la cúpula radical de ADEGI más pronto que tarde les inviten a entrar en razón.

## NO ES UN BLINDAJE, ES UNA ESTAFA

**Durante la reunión, a la hora de explicar su postura en torno al cambio radical que propone en el modelo de negociación colectiva para Gipuzkoa, ADEGI ha hecho hincapié varias veces en la Mesa de Negociación Intersectorial que, bajo la aparente pretensión de blindar el marco vasco de relaciones laborales, mantiene (en el seno de CONFEBASK) con los sindicatos LAB, CCOO y UGT.**

**A este respecto desde ELA debemos recalcar que eliminar de facto la posibilidad de negociar en las empresas no es defender el marco vasco de relaciones laborales ni nada que se le parezca. Porque eso no es ningún blindaje, sino ¡¡UNA AUTÉNTICA ESTAFA!!**

